

## **MUGIKORTASUN MAHAIA**

Eguna: 2017/01/16

Ordua: 19:30

Bertan dira:		
Manolo Iturrioz	J. M. Santamaria	Aitor Escalante
Amparo Diaz de Cerio	Arantxa Fernandez	
Fermin Sukia	Iñaki Dubreuil	

Ez dira bertaratu: Carlos Gonzalez Astiz, Aitor Velazquez eta EH Bilduko eta Ordizia Oraineko ordezkariak.

19:50 direnean, hasiera eman zaio mugikortasun-mahaiaren bosgarren bilerari.

Angel Lasa Jauregik mahaiaren parte ez hartzeko arrazoiak azaltzen dituen gutuna irakurri du Aitor Escalantek. Halaber, Turismo Sailari egindako gonbidapenari Leire Arandiak emandako erantzunaren berri eman da; horrek ere uko egin dio mahaiaren parte hartzeari. Bilera honetako aktari atxikiko zaizkio bi erantzunak. Zozketa bidez lortutako zerrendako ordezkari mahaikidea Leonardo Arsuaga izango da. Aitor Escalantek emango dio horren berri.

Samperio kaleko bizilagunek aurkeztutako idazkia irakurri da. Gaiari heldu eta aztertu ondoren, kasu hori mugikortasun-forora eraman behar dela erabaki da. Aipatu foroa denboratarte laburrean eratzeko espero da. Nolanahi ere, autoek eta bereziki furgonetek aparkalekuak duen egungo seinaleztapen horizontala betetzeko zaintza areagotzea erabaki da. Halaber, eta errefortzu gisa, informazio bertikala jartzea ere komenigarria litzateke.

Aitor Escalante: Santa Anako aparkalekuko txandakako erabilerari buruz prestatu duen proposamena azaldu du, labur. Proposameneko aukerak baloratuta, mahaikide guztiek erabaki dute LEBER enpresa gonbidatzea elkarrekin lan egiteko. Proposamena atxiki da.

LEBERek aparkalekuen erabilera egokiari buruzko azterlana egin bitartean mahaiak trafikoa aztertzen jarraitu behar duela erabaki da, horixe baita mahaiaren eratu izanaren arrazoi bat.

Iñaki Dubreuilek Joaquin Ibarbia kale zabaltzeko aukera aztertzea proposatu du, bertan aparkatzeko lekuren bat atera ote daitekeen aztertzeko.

Mugikortasun-mahaiaren 4. bileraren akta onartu da.

Mugikortasun-mahaiaren hurrengo bilera urtarrilaren 23an izango da, 19:00etan.

Bilera 21:15ean bukatu da.

## **APARKALEKUA 'TXANDAKAKO' BIHURTZEKO PROPOSAMENA**

Ordiziako Mugikortasun Mahaiak erabaki du aztertzea zein aukera dauden herrigunetik hurbil dauden kanpoko bi aparkalekuak (Santa Anakoa eta tren-geltokiaren behealdekoa) aparkatze txandakatuko aparkaleku bihurtzeko.

Halaber, mahaiaren aipatu da 3 erabiltzaile-multzo hartu beharko liratekeela aintzat. Eremuko bizilagunak, herrian erosketak egin asmo dutenak, eta, azkenik, asteko azokako bisitariak.

Bi aparkaleku horiek sarbide desberdinak dituztela kontuan hartuta (Santa Anakoak oso sarbide korapilatsuak ditu), nire iritziz biak modu berean arautu beharko lirateke.

### **1. SANTA ANAKO APARKALEKUA**

Kasu honetan, aparkalekua gehienbat 10:30etik 13:00etara, eta 16:30etik aurrera erabiltzen da.

Gainerako orduetan eremuko bizilagunek eta Ordizian lan egiten duten pertsonak erabiltzen dituzte.

- **Hartu beharreko neurriak:**

Sarrera-irteerak arautzeak du lehentasuna. Bai Eguterako sarbidea, bai Iturtxokoa oso bide estuak dira; hortaz, aparkalekua erabiliko duten guztiek leku beretik sartu beharko dute.

Aukerarik egokiena hauze litzateke: sartu Iturtxobidetik, eta atera Eguterabidetik. Aparkalekura Eguterabidetik sartzea debekatuko da, eta kamera bitartez kontrolatu beharko litzateke (duela urte batzuk ere kale horretatik sartzea debekatu zen, baina gidariek ez zuten kasurik egiten). Baloratu beharreko beste neurri bat Eguterabideko aparkalekuak (11) kentzea da. Bide horrek trafikoa moderatua du bi noranzkoetan. Oraintxe bertan norabideetako bat kentzea bideraezina da, baserrietara eta batez ere zaharren egoitzara doazen ibilgailu handiak baitaude. Bigarren aukera gisa, eta aparkalekuak bere horretan utzita, Eguterabidean eta Joaquin Ibarbia kalean

bizi direnzentzat gorde litezke aparkaleku horiek. Horrela, soilik aparkaleku baten bila dabilzanen zirkulazioa murriztuko genuke. Horrez gain, kale horietako auzokideei aparkatzeko aukera emanen genieke.

- Txandakako aparkalekuak izan ditzakeen aukera desberdinak:  
Hainbat aukera daude: besteak beste, aparkalekuak margotzea eta TAOko eremu arrunt bihurtu, edo ordaindu beharreko aparkaleku bihurtu. Hauexek dira aukerak:
  - ✓ TAO eremua. Aukera horrek badu arazorik: pertsona bat jarri beharko litzateke kontrolatzeko.
  - ✓ TAO eremua txartelarekin: Txartelak emango lituzkeen makina bat jarri beharko litzateke, eta ordaintzeko aparkalekua litzateke. Aurrekoaren arazo berbera dauka.
  - ✓ Ordaindu beharreko aparkalekua. Denboraren arabera ordaintzen den ohiko aparkalekua litzateke. Modalitate horretan, deskontuak ezar genitzake Ordizian edo azokako postuetan egindako erosketengatik.
  - ✓ Doako aparkalekua, denbora mugaturekin. OCR irakurgailua (matrikulak irakurtzekoa) duten kamerak jarri beharko lirateke sarrera eta irteeran. Kasu horretan ez litzateke kontrolatzailerik beharko, baina oso garbi eduki beharko genuke zein izango den aparkatzeko gehienezko denbora, zenbatetan aparka liteke ordu-tarte berean, eta abar.

Kaixo jaun andreak:

Aurreko egunean telefonoz dei egin zenidaten Udaltzaingo buruaren bidez, Ordiziako Udaletxeko Mugikortasunaren Mahaian niri parte hartzeko aukera emateko, horretarako arrazoa aurretik zozketa bidez aukeratutako herritar batek bere parte hartzea bertan behera utzi zuelako, eta zozketa horretako zerrendan hurrengo ni nintzelako.

Lehenengo unean, poza hartu nuen nik Mahai horretan parte hartzeko eta nire ekarpenak bertan botatzeko aukera izateagatik. Kontua da geroztik gai horren inguruan sakon pentsatzen aritu naizela, eta besteak beste, ezin dudala albora utzi duela gutxi herritar orok eskualdeko komunikabideetan jaso ditugun hainbat informazio Mahai horri buruz, non zalantzan jartzen diren jada osatuta dagoen Mahaia bera eta osaketa ere, Ordiziako gizarte osoaren ordezkari bat ez duelako errespetatzen.

Ez dakit ageri dena guztiz zuzena den ala ez, baina horrelako susmoen aurrean, nahiago dut nire burua "polemika" horretatik albora utzi eta Mahai horretatik kanpo geratzea.

Esan pena handia ematen didala horrelako erabakia hartzea, justu gai hori beti gustukoa izan dudalako, baina iruditzen zait ulertuko duzuela nire erabakia.

Gainerakoan, jaso ezazue nire eskerra nirekin kontatzeagatik, eta hurrengo batean izango delakoaren itxaropenarekin geratuko naiz.

Agur eta izan ondo.

Anjeltxo Lasa

